| 2019KO ABENDUAREN 23AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA. | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 23 DE DICIEMBRE DE 2019. |
|---|---|
| ============================== | ============================== |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTA** |

Amaia Aguirre Muñoa and.

| **ALKATEORDEAK** | **VICEALCALDESAS Y VICEALCALDE** |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Carmen Diaz Perez (PSE-EE)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ-PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ-PNV)

| **ZINEGOTZIAK** | **C O N C E J A L E S** |
|---|---|

Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV).
Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV).
Carlos Sergio Achotegui (EAJ/PNV)
Janire Ocio Celada (EAJ/PNV)
Ainhoa Galduroz Alvarez (EAJ/PNV)
Arantzazu Rica Alvarez (EAJ/PNV)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP).
Francisco J. Elorza Hormaeche (PP).
Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda (PP)
Alicia González Del Valle Francos (PP)
Natalia Aranduy Zuazagoitia (PP)
Nerea Guijarrubia Garzia (EH BILDU).
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Itxaso Maseda Saratxo (EH BILDU)
Cristina Zamora Chuquiguanga (EH BILDU)

Gonzalo Ayo Jimenez (PSE-EE)
Asunción Olaeta Perez De Mendiola (PSE-EE)
Ignacio Robles Fernández (E. PODEMOS)
Paula Amieva Clemente (E. PODEMOS)

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Amaia Aguirre Muñoa andrea dela, egun horretako goizeko bederatzietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia de la Alcaldesa-Presidenta, Amaia Aguirre Muñoa, se reunió a las nueve horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

La Alcaldesa, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

## EBAZPEN ATALA

## PARTE RESOLUTIVA

**199.- GETXOKO UDALBALTZAK 2019KO AZAROAREN 28AN EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTE.**

2019ko azaroaren 28an Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onestea.

**199- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 28 DE NOVIEMBRE DE 2019.**

Por unanimidad se aprueba el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 28 de noviembre de 2019.

## ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

## ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

**200.- LANPOSTUEN BALORAZIOAREN ONDORIOZ LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Ignacio Uriartek esan du LPZn askotan eskatu izan den lanpostuen balorazioa dagoela jasota. Udalaren proposamena orekatua da, eta langileen ordezkariekin batera erabakitakoa. Balorazio prozesuan pazientzia behar izan dutela azpimarratu du, gogor lan egin dutela, eta erabakiak elkarrekin hartu dituztela, eta guztien interesa norbanakoen interesen aurretik jartzearren eskerrak eman ditu. Bere ustez, proposamen horren bidez hobetu egingo da udalak herritarrei ematen dien zerbitzua, eta ondoren, proposamenaren oinarrizko elementuak azpimarratu ditu. Adierazi du sindikatuetako ordezkarien %92k babestu egin zutela, eta akordioaren bitartez, etorkizunean hainbat jarduketa gauzatu ahal izango direla.

Paula Amievak esan du prozesua bukatzeko urteak behar izan dituztela, eta ez direla egongo sindikatu gehienek sinatu duten zerbaiten aurka, SVP salbuetsiz, horren aurka agertu baitira. Ez dute alde bozkatuko, izan ere, prozeduran informazioa ezkutatu da eta udaleko taldeei, sindikatuei eta langileei ez zaie tratu egokirik eman. Esan du, pertsona asko ez daudela ados emaitzarekin ezta prozesuarekin, gobernu taldeak

**200.- MODIFICACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO COMO CONSECUENCIA DE LA VALORACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO.**

Tras darse lectura a la propuesta Ignacio Uriarte presenta la misma indicando que la RPT recoge la valoración de puestos de trabajo tantas veces demandada. La propuesta de la organización municipal es equilibrada y acordada con la representación del personal. Destaca la paciencia que ha sido necesaria en este proceso de valoración, la perseverancia en el trabajo y en llegar a acuerdos y agradece también la comprensión que se ha dado para primar el interés general sobre el particular. Estima que la propuesta va a mejorar el servicio que el ayuntamiento presta a la ciudadanía, pasando a continuación a detallar los elementos fundamentales de la propuesta. Incide que en el 92% de los delegados sindicales apoyaron la misma y que el acuerdo abre paso a futuras actuaciones.

Paula Amieva manifiesta que el proceso ha llevado años y que no van a oponerse a algo que la mayoría de los sindicatos ha firmado, con la excepción del SVP que se ha opuesto. No van a votar a favor ya que en el proceso se ha dado ocultación de información y maltrato a los grupos municipales y también a los sindicatos y empleados. Manifiesta que hay muchas personas que no están de acuerdo ni con los resultados ni con el proceso porque han sentido el desprecio por parte del equipo de gobierno, sensación que también comparte como grupo político.

gutxietsi egin dituela uste dutelako, eta talde politiko gisa ere horrela sentitzen dira. Sindikatuek zerbait izatearren eta 2019ko urtarrilaren 1ean atzeraeragina izateko sinatu dute. Ezer ez da esan erreklamazioei buruz, ez direlako erantzun. Ados dago, LPZ behar da, baina, beraiek balorazio prozesu duina nahi zuten. Irtenbidea erosoa da prozesua gidatu dutenentzat, hau da, Langileen Sailarentzat.

Los sindicatos han firmado por tener algo y para lograr la retroactividad al 1 de enero de 2019. Nada se ha dicho acerca de las reclamaciones planteadas, ya que no se han contestado. Reconoce la necesidad de una RPT pero eran partidarios de un proceso de valoración digno. La solución es cómoda para los que han liderado el proceso que ha sido el departamento de Personal.

Carmen Diazek esan du plantillari eta zereginei buruzko egoera errealagoa adierazten duen proposamena babestuko dutela, sindikatuen babesa duena eta aurrekontuetara egokitzen dena. LPZk une bakoitzeko beharrei erantzuna emateko duen dinamismoa azpimarratu du. Alderdi guztiek lan handia egin dutela adierazi du akordio batera iristeko.

Carmen Díaz indica que apoyarán la propuesta que ofrece una fotografía más real de la plantilla y de las funciones, que goza con el apoyo sindical y encaja presupuestariamente. Destaca el dinamismo de la RPT para dar respuesta a las necesidades de cada momento. Reconoce el esfuerzo de todas las partes para llegar a un acuerdo.

Ibon Rodriguezek esan du deigarria dela beraiek gai hori jorratzen dauden bitartean, beste udaleko langile batzuk, azpikontratatuak izan direnak, kalean protestatzen egotea. Bere iritziz, lanpostuen balorazioa onetsi behar da, gehiegi iraun baitu berau sortzeko prozesuak, albo batera utzi gabe horrek guztiak langileengan eta herritarrengan sortutako kalteak. Esan du ez dela beraiek nahiko luketen balorazioa, eta adierazi du sindikatu guztiek babestu dutela batek izan ezik. Esan du orain dela lau urte hasi zirela horren inguruan lanean, eta gogoratu du gobernu

Ibon Rodríguez manifiesta que es llamativo estar tratando de este tema a la vez que otros trabajadores municipales, aunque subcontratados, protestan en la calle. Estima que ya es hora de aprobar la valoración de puestos de trabajo que se ha prolongado durante excesivos años con los perjuicios que ello ha traído tanto para los empleados como para la ciudadanía. Indica que no es la valoración de puestos que les gustaría y reconoce que tiene el apoyo de todos los sindicatos menos uno. Indica que hace cuatro años se empezó con el tema y recuerda que en el pacto con el equipo de gobierno no cerraron plazos por la negativa del equipo de gobierno pero al final se ha presentado. El trabajo

taldearekin egindako akordioan ez zituztela epeak finkatu gobernu taldea aurka zegoelako, baina azkenean, aurkeztu dute. Baina lana ez da bukatu, izan ere, erakunde autonomoen lanpostuen balorazioa egin behar da. 2016an EH Bilduk gobernu taldeari proposatu zion udal langile guztien lanpostuen balorazioa egiteko, eta beraien iritziz, balorazio horretan sartu beharko lirateke tokiko erakunde autonomoak, baina gobernu taldeak interpretazio mugatzailea egin zuen eta bakarrik udaleko langileentzako zela esan zuen, eta zenbaitetan adierazi zuen udalekoa egin ondoren tokiko erakunde autonomoetakoa egingo zela, eta hori betetzeko zain daude, eta esan dute kontrolatu egingo dutela, izan ere, azkenaldian tokiko erakunde autonomoen izaera ezberdina nabarmentzen duten adierazpenak egiten baitira, eta horregatik kezkatuta daude.

no ha terminado ya que aún resta la valoración de trabajo de los organismos autónomos. El año 2016 EH Bildu planteó al equipo de gobierno una valoración de puestos de trabajo de todos los empleados municipales, que en su opinión incorporaban también los organismos autónomos locales pero el equipo de gobierno con una interpretación restrictiva lo limitó a los del ayuntamiento indicándose en diferentes ocasiones que después de la del ayuntamiento se haría la de los organismos autónomos locales y esperan que esto se cumpla, manifestando que estarán vigilantes al respecto ya que últimamente ven manifestaciones que inciden en el carácter diferente de los organismos autónomos locales, cuestión que les preocupa.

Eduardo Andradek esan du 2008an gobernu taldeak adierazi zuela lanpostuen balorazioa egingo zuela, baina ordutik urte asko igaro direla, eta azkenean, udalak berak egin duela. PPk eta gobernu taldeak erabakia hartu zuten elkarrekin LPZko aldaketak babesteko, betiere balorazioa egiten baldin bazen, eta hala, konpromiso hori bete da. Sindikatuekin hitz egin dute, eta nahiz eta nahi zuten guztia ez lortu, adostasunetara iritsi dira, eta horregatik proposamena onetsiko dute.

Eduardo Andrade indica que el año 2008 se anunció por el equipo de gobierno la valoración de puestos de trabajo pero desde entonces han pasado muchos años y por fin se ha realizado por el propio ayuntamiento. El PP llegó a un compromiso con el equipo de gobierno de apoyar modificaciones de la RPT si se hacía la valoración y ese compromiso se ha cumplido. Han hablado con los sindicatos y si bien no han conseguido todo lo que querían han llegado a un consenso y por todo ello aprobarán la propuesta.

Keltse Eigurenek esan du proposamenaren helburu nagusia lanpostuen balorazioaren prozesua Lanpostuen Zerrendan txertatzea dela. LPZren helburua eta proposamenaren edukia aztertu ditu. Bere ustez, proposatu denarekin, administrazio antolamendua hobetuko da, eta beraz, zerbitzu prestazioa ere hobetu egingo da. Akordio honen ondoren, zerbitzu publikoa hobetzeko bestelako jarduketak gauzatuko dira.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: 23 aldeko boto (EAJ, PP, EH Bildu eta PSE- EE) eta 2 abstentzio (Elkarrekin Podemos).

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA.- Udalean dauden arloen barruan honako UNITATE hauek SORTZEA eta lanpostuak horiei atxikitzea, Osoko Bilkuraren erabaki honi erantsitako Lanpostuen Zerrendan jasotzen den bezala:

1. Gobernu Irekirako eta Modernizaziorako Arloa:
- Komunikazio Unitatea.
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Unitatea.
- Euskara Unitatea.
- Kalitate eta Kudeaketa Aurreratuko Unitatea.
- Gardentasunerako eta Herritarren Partaidetzarako Unitatea.

Keltse Eiguren manifiesta que la propuesta tiene por objeto fundamental incorporar el proceso de valoración de puestos de trabajo a la Relación de Puestos de Trabajo. Analiza el objetivo de la RPT y el contenido de la propuesta con toda su amplitud. Coincide que lo planteado permite una mejor organización administrativa y, por tanto, una mejora en la prestación de los servicios. A partir de este acuerdo seguirán otras actuaciones para mejorar el servicio público.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 23 votos a favor, PNV, PP, EH Bildu, PSE-EE; 2 abstenciones, Elkarrekin Podemos.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acordó:

PRIMERO.- CREAR las siguientes UNIDADES dentro de las áreas existentes en el Ayuntamiento y adscribir a las mismas los puestos de trabajo tal y como se recoge en la Relación de Puestos de Trabajo que figura anexa al presente acuerdo plenario:

1. Área de Gobierno Abierto y Modernización:
- Unidad de Comunicación.
- Unidad de Tecnologías de la Información y las Comunicaciones.
- Unidad de Euskera.
- Unidad de Calidad y Gestión Avanzada.
- Unidad de Transparencia y Participación Ciudadana.
- Unidad Administrativa.

- Administrazio Unitatea.

2. Gizarte Kohesiorako Atala:
- Gizarte Zerbitzuen Unitatea.
- Esku-hartze Sozio-komunitarioko Unitatea.
- Administrazio Unitatea.

3. Herritarren Segurtasun Arloa:
- Herritarren Segurtasunerako Unitatea.
- Herritarren Segurtasunerako Unitate Tekniko-Administratiboa.

4. Hirigintza-plangintza, Kudeaketa eta Diziplina Arloa:
- Hirigintza-Plangintzako eta Kudeaketako Unitatea.
- Hirigintza-Diziplinako Unitatea.
- Administrazio Unitatea.

5. Azpiegituren, Obren eta Zerbitzuen Arloa. Ingurumena:
- Azpiegitura Unitatea.
- Ingurumen Unitatea.
- Udal Eraikinen Unitatea.
- Administrazio Unitatea.
- Udal Brigadak:
  - Obra eta Zerbitzuetako Brigada.
  - Hilerriko Brigada.
  - Parke Mugikorreko eta Tailer Mekanikoko Brigada.
  - Ur Brigada.
  - Saneamendu Brigada.
  - Bidezaintza Brigada.

6. Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza Arloa:
- Kontratazio Unitatea.
- Ondare eta Etxebizitza Unitatea.
- Administrazio Unitatea.

7. Tokiko Ekonomia Sustapenaren Arloa:
- Getxolan Unitatea.
- Turismo Unitatea.
- Administrazio Unitatea.

8. Idazkaritza Nagusiaren Arloa:
- Araubide Juridikoaren Unitatea.
- Zerbitzu Orokorretako Unitatea.

2. Área de Cohesión Social:
- Unidad de Servicios Sociales.
- Unidad de Intervención Socio-Comunitaria.
- Unidad Administrativa.

3. Área de Seguridad Ciudadana:
- Unidad de Seguridad Ciudadana.
- Unidad Técnico-Administrativa de Seguridad Ciudadana.

4. Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística:
- Unidad de Planeamiento y Gestión Urbanística.
- Unidad de Disciplina Urbanística.
- Unidad Administrativa.

5. Área de Infraestructuras, Obras y Servicios. Medio Ambiente:
- Unidad de Infraestructuras.
- Unidad de Medio Ambiente.
- Unidad de Edificios Municipales.
- Unidad Administrativa.
- Brigadas Municipales:
  - Brigada de Obras y Servicios.
  - Brigada de Cementerio.
  - Brigada de Parque Móvil y Taller Mecánico.
  - Brigada de Aguas.
  - Brigada de Saneamiento.
  - Brigada de Vialidad.

6. Área de Contratación, Patrimonio y Vivienda:
- Unidad de Contratación.
- Unidad de Patrimonio y Vivienda.
- Unidad Administrativa.

7. Área de Promoción Económica:
- Unidad de Getxolan.
- Unidad de Turismo.
- Unidad Administrativa.

8. Área de Secretaría General:
- Unidad de Régimen Jurídico.
- Unidad de Servicios Generales.

- Administrazio Unitatea.

9. Kontu-hartzailetza Orokorraren Arloa:
- Barne Ikuskaritzako eta Kontroleko Unitatea.
- Aurrekontu eta Kontabilitate Unitatea.
- Administrazio Unitatea.

10. Diruzaintza Arloa:
- Errenten eta Zerga Kudeaketaren Unitatea.
- Diru-bilketako Unitatea.
- Administrazio Unitatea.

11. Langileria eta Antolaketa Arloa:
- Langileen Unitatea.
- Langileen Unitatea (Udaltzaingoa).
- Antolaketa Unitatea.
- Laneko Osasun eta Segurtasuneko Unitatea.
- Administrazio Unitatea.

BIGARRENA.- 2019ko otsailaren 27ko Osoko Bilkuran hartu zen 28. Erabakia aldatzea, gaztelaniazko bertsioan hautemandako akatsak zuzentzeko (euskarazko bertsioan zuzen zeuden). Hauek dira:

- Unidad Administrativa.

9. Área de Intervención General:
- Unidad de Control Interno e Inspección.
- Unidad de Presupuestos y Contabilidad.
- Unidad Administrativa.

10. Área de Tesorería:
- Unidad de Rentas y Gestión Tributaria.
- Unidad de Recaudación.
- Unidad Administrativa

11. Área de Personal y Organización:
- Unidad de Personal.
- Unidad de Personal (Policía Local)
- Unidad de Organización.
- Unidad de Salud y Seguridad Laboral.
- Unidad Administrativa

SEGUNDO.- Modificar el acuerdo nº 28 aprobado en el pleno de fecha 27 de febrero de 2019, de manera que se corrigen los errores advertidos en la versión en castellano (en la versión en Euskera estaban correctos) y que son:

| LANPOSTUA | OKER DAGOEN BERTSIOA | BERTSIO ZUZENDUA |
|---|---|---|
| GOBERNU IREKIRAKO ETA MODERNIZAZIORAKO ARLOAREN ARDURADUNA | Honako hau dioen lekuan: Eskala: ADMINISTRAZIO BEREZIA | Hau esan behar du: ESKALA: ADMINISTRAZIO OROKORRA/BEREZIA |
| HIRIGINTZA-PLANGINTZA, KUDEAKETA ETA DIZIPLINA ARLOAREN ARDURADUNA. UDAL ERAIKINAK | Honako hau dioen lekuan: "ESKALA: ADMINISTRAZIO BEREZIA". | Hau esan behar du: "ESKALA: ADMINISTRAZIO OROKORRA/BEREZIA". |
| HIRIGINTZA-PLANGINTZA, KUDEAKETA ETA DIZIPLINA ARLOAREN ARDURADUNA. UDAL ERAIKINAK | Honako hau dioen lekuan: "HIRIGINTZA-PLANEAMENDU, KUDEAKETA ETA DIZIPLINA ARLOAREN ARDURADUNA. UDAL ERAIKINAK". | Esan behar du: "HIRIGINTZA-PLANGINTZA, KUDEAKETA ETA DIZIPLINA ARLOAREN ARDURADUNA. UDAL ERAIKINAK". |
| INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN (IKT) ARDURADUNA | Honako hau dioen lekuan: "INFORMATIKAKO LIZENTZIADUNA EDO BALIOKIDEA/TELEKOMUNIKAZIOETAKO INGENIARIA" | Hau esan behar du: "INFORMATIKAN LIZENTZIADUNA, INFORMATIKAKO INGENIARIA EDO BALIOKIDEA/TELEKOMUNIKAZIOETAKO INGENIARIA". |

| PUESTO | VERSIÓN ERRONEA | VERSIÓN CORREGIDA |
|---|---|---|
| RESPONSABLE DEL ÁREA DE GOBIERNO ABIERTO Y MODERNIZACIÓN | Donde dice: "ESCALA: ADMINISTRACIÓN ESPECIAL". | Debe decir: "ESCALA: ADMINISTRACIÓN GENERAL/ ESPECIAL". |
| RESPONSABLE DEL ÁREA DE PLANEAMIENTO, GESTIÓN Y DISCIPLINA URBANÍSTICA. EDIFICIOS MUNICIPALES | Donde dice: "ESCALA: ADMINISTRACIÓN ESPECIAL". | Debe decir: "ESCALA: ADMINISTRACIÓN GENERAL/ ESPECIAL". |
| RESPONSABLE DEL ÁREA DE PLANEAMIENTO GESTIÓN Y DISCIPLINA URBANÍSTICA. EDIFICIOS MUNICIPALES | Donde dice: "RESPONSABLE DEL ÁREA DE PLANIFICACIÓN, GESTIÓN Y DISCIPLINA URBANÍSTICA. EDIFICIOS MUNICIPALES". | Debe decir: "RESPONSABLE DEL ÁREA DE PLANEAMIENTO, GESTIÓN Y DISCIPLINA URBANÍSTICA. EDIFICIOS MUNICIPALES". |
| RESPONSABLE DE TECNOLOGÍAS DE LA | Donde dice: "licenciado en | Debe decir: "Licenciado en informática, |

HIRUGARRENA- Lanpostu hauek ALDATZEA, Lanpostuen Balorazioaren aurretik egindako monografien ondorioz:

a) Lanpostu motari dagokionez, lanpostu berezituak izatetik normalizatuak izatera igaro dira:

- IKUS-ENTZUNEZKO HEDABIDEEN TEK. ESPEZIALISTA lanpostuaren 116 zuzkidura.
- PROGRAMEN KOORDINATZAILEA lanpostuaren 7252, 101 eta 101 kodeak dituzten zuzkidurak.
- INGURUMENEKO TEKNIKARIAREN lanpostuaren 108 kodea duen zuzkidura.
- ENPRESA ETA JARDUERA TURISTIKOEN TEKNIKARIA lanpostuaren 328 eta 329 kodeak dituzten zuzkidura.
- 211 OBRA ETA ZERBITZUETAKO ARDURADUNA, 341 TAILER MEKANIKOKO ETA PARKE MUGIKORREKO ARDURADUNA, 212 UREN ARDURADUNA, 213 SANEAMENDUKO ARDURADUNA eta 214 BIDEZAINTZAKO ARDURADUNA lanpostuen zuzkidura.

b) Lanpostuaren izenari dagokionez:

- 6965 kodea duen lanpostua, ZUZENDARIA deitzen zena, HERRITARREN SEGURTASUNAREN ARLOKO ARDURADUNA - UDALTZAINGOAREN ZUZENDARIA deituko da aurrerantzean.

TERCERO.- MODIFICAR los siguientes puestos de trabajo como consecuencia de los resultados de las monografías realizadas previamente a la Valoración de Puestos de Trabajo:

a) En cuanto al tipo de puesto, pasando de ser puestos singularizados a puestos normalizados:

- Dotación 116 del puesto TEC. ESPECIALISTA MEDIOS AUDIOVISUALES.
- Dotaciones con códigos 7252, 102 y 101 del puesto COORDINADOR/A DE PROGRAMAS.
- Dotación con código 108 del puesto TECNICO/A MEDIO AMBIENTE.
- Dotaciones con código 328 y 329 del puesto TECNICO/A EMPRESAS Y ACTIVIDADES TURÍSTICAS.
- Dotaciones de los puestos 211 ENCARGADO/A DE OBRAS Y SERVICIOS, 341 ENCARGADO/A DE TALLER MECANICO Y PARQUE MOVIL, 212 ENCARGADO/A DE AGUAS, 213 ENCARGADO/A DE SANEAMIENTO Y 214 ENCARGADO DE VIALIDAD.

b) En cuanto a la denominación del puesto:

- El puesto con código 6965 que venía denominándose DIRECTOR/A pasa a denominarse como RESPONSABLE ÁREA SEGURIDAD CIUDADANA- DIRECTOR/A POLICIA LOCAL.

c) Lanpostuen zuzkidura guztiak Getxoko udalaren administrazio-bulegoei atxikiko zaizkie, lantoki gisa.

c) Todas las dotaciones de los puestos se adscriben a las dependencias administrativas del Ayuntamiento de Getxo como Centro de Trabajo.

LAUGARRENA.- Lanpostuen Balorazioaren aurretik egindako monografien ondorioz, honako lanpostu hauek ERALDATZEA:

a) UNITATEAREN ARDURADUNAREN lanpostu berezitua, C1 azpitaldeko 32. kodea duena, bereizi gabe Administrazio Orokorreko eta Bereziko plazei esleitua, izaera normalizatuko ADMINISTRARIAREN lanpostuaren beste zuzkidura bat bihurtuko da, Administrazio Orokorreko plazei esleitua.

b) Lanbide Taldeetako (lehengo E taldea) Uren Brigadako lanpostuetako zuzkidurak, lanpostuen 6635 LAGUNTZAILEA eta 408, 348, 263 eta 262 UREN ZAINTZAILEA lanpostuekin, URETAKO LANGILE ESPEZIALISTAREN lanpostu bihurtuko dira.

CUARTO.- TRANSFORMAR los siguientes puestos de trabajo como consecuencia de las monografías realizadas previamente a la Valoración de Puestos de Trabajo:

a) El puesto singularizado RESPONSABLE DE UNIDAD con código 32 del subgrupo C1 asignado indistintamente a plazas de la administración General y Especial pasa a transformarse en otra dotación del puesto de ADMINISTRATIVO de carácter normalizado y asignado a plazas de la administración General.

b) Las dotaciones de los puestos de la Brigada de Aguas de las Agrupaciones Profesionales (antiguo Grupo E) con los códigos 6635 puesto AYUDANTE Y 408, 348, 263 Y 262 puesto VIGILANTE DE AGUAS se transforman en puestos de OPERARIO/A ESPECIALISTA AGUAS.

| | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 32 | ADMINISTRATIVO/A | N | FC | AG | CO | AGE | C1 | 17 | T10 | | 2 | | Bachiller Superior | | | | Depend. Admtivas. Ayto. Getxo |
| 6635 | OPERARIO ESPECIALISTA AGUAS | N | FC | AG | CO | AES | AP | 13 | T10 | | 2 | 31/12/2007 | Certificado Escolaridad | | TURNOS | PINEDA CRESPO, CARLOS | Depend. Admtivas. Ayto. Getxo |
| 408 | OPERARIO ESPECIALISTA AGUAS | N | FC | AG | CO | AES | AP | 13 | T10 | | 1 | | Certificado Escolaridad | | TURNOS | DIEZ GOMEZ, JOSE RAMON | Depend. Admtivas. Ayto. Getxo |
| 348 | OPERARIO ESPECIALISTA AGUAS | N | FC | AG | CO | AES | AP | 13 | T8 | | 1 | | Certificado Escolaridad | | | MENDIETA BILBAO, JUAN PEDRO | Depend. Admtivas. Ayto. Getxo |
| 263 | OPERARIO ESPECIALISTA AGUAS | N | FC | AG | CO | AES | AP | 13 | T8 | | 1 | | Certificado Escolaridad | | | PRADO URIBARRI, PABLO | Depend. Admtivas. Ayto. Getxo |
| 262 | OPERARIO ESPECIALISTA AGUAS | N | FC | AG | CO | AES | AP | 13 | T10 | | 1 | | Certificado Escolaridad | | TURNOS | SANCHEZ PORTUONDO, JUAN CARLOS | Depend. Admtivas. Ayto. Getxo |

BOSGARRENA.- Getxoko udalean egin den lanpostuen balorazio prozesuaren emaitzako Lanpostuen Zerrendako lanpostuei Destinoko Osagarriaren eta Berariazko

QUINTO.- ASIGNAR a los puestos de trabajo de la RPT los valores de Complemento de Destino y de Complemento Específico resultantes del proceso de Valoración de Puestos

Osagarriaren balioak ESLEITZEA, Osoko Bilkura honen Erabaki honi erantsitako lanpostuen zerrendan jasotzen den bezala, 2019ko urtarrilaren 1ko efektuarekin.

de Trabajo que se ha realizado en el Ayuntamiento de Getxo tal y como se recoge en la Relación de Puestos de Trabajo que figura anexa al presente acuerdo plenario, con efectos a 1 de enero de 2019.

Aurreko paragrafoan aipatutako gastua baimendu eta xedatzea, 1.010.593,52 €-koa, 110/00 9201-0 121.00.00 2019/002268 aurrekontu-partidaren kontura eta Gizarte Segurantzari lotutako gastua, 353.707,73 €-koa, 110/00 9201-0 160.01.00 2019/002268 aurrekontu-partidaren kargura.

Autorizar y disponer el gasto referido en el párrafo anterior por importe de 1.010.593,52€ con cargo a la partida presupuestaria 110/00 9201-0 121.00.00 2019/002268 y el gasto asociado a Seguridad Social por importe de 353.707,73€ con cargo a la partida presupuestaria 110/00 9201-0 160.01.00 2019/002268.

Horrez gain, 2018ko abenduaren 19ko negoziazio mahaian erakundearen eta sindikatuen artean sinatutako akordioaren 9.3. apartatuari jarraituz: “Osagarri espezifikoaren zenbateko berria edonola ere balorazio prozesuan sortzen dena izango da. Gaur egungoa baino baxuagoa baldin bada, diferentzia xurgatu egingo da LOn eta OEn batera sortutako emaitza positiboa bada. Alderantziz, negatiboa bada, diferentzia ad personam ordainduko da osagarri pertsonal iragankorraren (OPI) bitartez”. Osagarri hau ez da eguneragarria izango.

Asimismo, en aplicación del apartado 9.3 del acuerdo entre la institución y los sindicatos firmado en la mesa de Negociación de fecha 19 de diciembre de 2018: “La nueva cuantía del complemento específico será, en todo caso, la que resulte de este proceso de valoración. En el caso de que fuera inferior a la actual, la diferencia quedará absorbida si el resultado considerando conjuntamente el CD y el CE fuera positivo; si el resultado fuera negativo se abonará la diferencia “ad personam” mediante un complemento personal transitorio (CPT)”. Dicho complemento no será actualizable.

Irizpide hori aplikatuz, osagarri pertsonal iragankorrak ezarri behar dira lanpostu mailako osagarriaren eta berariazko osagarriaren batura balorazioaren aurretik jasotzen zutenetik behera gelditu zaienentzat, 22.100,73 eurokoa.

Por aplicación de este criterio hay que crear Complementos Personales Transitorios para aquellas personas cuya suma de los complementos de destino y complemento específico haya quedado por debajo de las que venían percibiendo con anterioridad a la valoración por un importe de 22.100,73 €, en el caso de que estuvieran cubiertas todas las dotaciones que se encuentran en esa situación.

Lanpostuen Zerrendan berariazko osagarria adierazteko erabiltzen den formatua aldatuko da, balorazioaren emaitzako Berariazko Osagarriaren tarte orokorra eta dedikazio bereziko tartearen kasuak adierazita, hala esleituta badauka.

Se va a proceder a la modificación del formato en que se expresa el complemento específico en la Relación de Puestos de Trabajo indicando el tramo de Complemento específico general resultante de la valoración y los supuestos del tramo de dedicación especial si así lo tiene asignado.

SEIGARRENA.- UREN ARDURADUNA zuzkidurarako (Kod.: 212) Erabateko Prestasuneko Lanaldi Zabalduaren dedikazio berezia EZARTZEA. Kontzeptu horrengatik berariazko osagarriaren dedikazio bereziaren tarte bat ezarriko da, soldataren, destinoagatiko osagarriaren eta tarte orokorreko osagarri espezifikoaren baturaren % 25ekoa, alegia. Lanpostuetako gainerako baldintzak aldatu gabe mantentzen dira.

SEXTO.- ESTABLECER para la dotación (Cod. 212) ENCARGADO/A DE AGUAS la dedicación especial de Jornada Ampliada con Disponibilidad Absoluta estableciéndose por dicho concepto un tramo de dedicación especial del complemento específico del 25% de la suma de Sueldo, Complemento de Destino y Complemento Específico Tramo General. Se mantienen sin modificar los restantes requisitos del puesto.

ZAZPIGARRENA.- HIRIGINTZA-PLANGINTZA, KUDEAKETA ETA DIZIPLINA ARLOAN sartuta zeuden UDAL ERAIKINEN UNITATEA eta Obrak eta Zerbitzuak Brigadak eta Hilerriko Brigadak BERRIZ ATXIKITZEA AZPIEGITUREN, OBREN ETA ZERBITZUEN ARLOA. INGURUMENA arloari.
Berratxikipen hori lanpostu hauetan gauzatzen da:

SÉPTIMO.- READSCRIBIR la UNIDAD DE EDIFICIOS MUNICIPALES y las Brigadas de Obras y Servicios y Cementerio que se encontraban en el AREA DE PLANEAMIENTO, GESTIÓN Y DISCIPLINA URBANÍSTICA, al AREA DE INFRAESTRUCTURA, OBRAS Y SERVICIOS-MEDIO AMBIENTE.
Dicha readscripción se concreta en los siguientes puestos:

| UNITATEA /UNIDAD | LANPOSTUA /PUESTO | ZUZKIDURA/ DOTACIONES |
|---|---|---|
| UDAL ERAIKINEN UNITATEA UNIDAD EDIFICIOS MUNICIPALES | APAREJADOREA APAREJADOR/A | 7883, 97 y 7882 |
| | DELINEATZAILEA DELINEANTE | 113 |
| | GARBIKETA-ARDURADUNA ENCARGADA/O DE LIMPIEZA | 255 |
| | ADMINISTRARIA ADMINISTRATIVO/A | 8183 |
| | ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA AUXILIAR ADMINISTRATIVO/A | 6914 |
| OBRA ETA ZERBITZUETAKO BRIGADA BRIGADA DE OBRAS Y | OBRA ETA ZERBITZUETAKO ARDURADUNA ENCARGADO/A DE OBRAS Y SERVICIOS | 211 |
| | OFIZIAL IGELTSEROA OFICIAL/A ALBAÑIL/A | 244, 246, 249, 243 |

| | | |
|---|---|---|
| SERVICIOS | OFIZIAL ZURGINA<br>OFICIAL/A CARPINTERO/A | 242, 240 |
| | OFIZIAL ELEKTRIKARIA OFICIAL/A ELECTRICISTA | 260, 399, 258 |
| | ITURGINTZAKO OFIZIALA OFICIAL/A FONTANERO/A | 226, 225 |
| | OFICIAL/A PINTOR/A | 253, 250, 252 |
| | OFIZIAL MARGOLARIA OPERARIO/A ESPECIALISTA | 284, 291, 289, 286, 287, 285, 409, 288, 290 |
| HILERRIKO BRIGADA<br>BRIGADA DE CEMENTERIO | LANGILEBURUA<br>CAPATAZ/A | 3230 |
| | OFIZIAL IGELTSEROA OFICIAL/A ALBAÑIL/A | 403 |
| | EHORZLEA<br>SEPULTURERO/A | 339 |
| | HILERRIKO LANGILE ESPEZIALISTA<br>OPERARIO/A ESPECIALISTA CEMENTERIO | 345, 346, 3229 y 282 |

ZORTZIGARRENA.- Lanpostu hauek BERRATXIKITZEA:

OCTAVO.- READSCRIBIR los siguientes puestos de trabajo:

| ZUZKIDURA | LANPOSTUA | JATORRIZKO ARLOA | DESTINOKO ARLOA |
|---|---|---|---|
| 400 | OFIZIAL IGELTSEROA | OBRETA ETA ZERBITZUETAKO BRIGADA | SANEAMENDU BRIGADA |
| 244 | OFIZIAL IGELTSEROA | SANEAMENDU BRIGADA | OBRETA ETA ZERBITZUETAKO BRIGADA |
| 31 | ADMINISTRARIA | IDAZKARITZA | EKONOMI SUSTAPENA |
| 37 | ADMINISTRARIA | IDAZKARITZA | GOBERNU IREKIA ETA MODERNIZAZIOA |

| DOTACIÓN | PUESTO | AREA ORIGEN | AREA DESTINO |
|---|---|---|---|
| 400 | OFICIAL ALBAÑIL | BRIGADA OBRAS Y SERVICIOS | BRIGADA SANEAMIENTO |
| 244 | OFICIAL ALBAÑIL | BRIGADA SANEAMIENTO | BRIGADA OBRAS Y SERVICIOS |
| 31 | ADMINISTRATIVO | SECRETARIA | PROMOCIÓN ECONÓMICA |
| 37 | ADMINISTRATIVO | SECREARIA | GOBIERNO ABIERTO Y MODERNIZACIÓN |

BEDERATZIGARRENA.- ZABORTEGIKO LANGILEAREN lanpostua KENTZEA; horren zuzkidura bakarra 272 da.

NOVENO.- SUPRIMIR el puesto de OPERARIO/A DE VERTEDERO cuya única dotación es la 272.

HAMARGARRENA.- Alkateari ahalmena ematen zaio, bere karguan diharduela, Lanpostuen Zerrendan aldaketak egiteko, baina bakarrik udal arloetako lanpostuen zerrenden atxikipena aldatzeari. Ondoren, horren berri emango dio Udaleko Osoko Bilkurari.

DÉCIMO.- Se faculta a la Alcaldía a fin de que en el ejercicio de su cargo pueda realizar las modificaciones de la Relación de Puestos de Trabajo que se refieran exclusivamente al cambio de la adscripción de los puestos de trabajo en las áreas municipales, dando cuenta con posterioridad al Pleno del Ayuntamiento.

HAMAIKAGARRENA.- Alkateari ahalmena ematen zaio, bere karguan

UNDÉCIMO.- Se faculta a la Alcaldía a fin de que en el ejercicio de su cargo

diharduela, Erabaki hau era eragingarriak betetzeko beharrezkoak diren neurri guztiak har ditzan.

pueda adoptar cuantas medidas resulten necesarias para el cumplimiento efectivo del presente Acuerdo.

HAMABIGARRENA.- Erabaki hau BAOn argitaratuko da, jende guztiak ezagutu dezan.

DUODÉCIMO.- El presente acuerdo será publicado en el BOB, para general conocimiento.

**201.- 37.1 – VENANTZIO EGIKARITZE-UNITATEA URBANIZATZEKO OBRETARAKO KREDITU GEHIGARRIA ONESTEA (3º ORDAINAGIRIA)**

**201.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LAS OBRAS DE URBANIZACIÓN DE LA UNIDAD DE EJECUCIÓN 37.1 VENANCIOS (RECIBO 3º)**

Proposamena irakurri ondoren, Ignacio Uriartek aurkeztu egin du, eta esan du proposamenaren helburua kredituak gaitzea dela hirigintza obrak horiek ordaintzeko.

Tras darse lectura a la propuesta Ignacio Uriarte presenta la misma indicando que tiene como finalidad habilitar créditos para hacer frente a las obras de urbanización indicadas.

Ignacio Roblesek esan du Elkarrekin Podemos ez dagoela ordaintzearen aurka. Egikaritze Unitatean babestutako etxebizitzen % 32 dago, eta bere ustez salgai jarriko dituzte, eta Elkarrekin Podemosek uste du irtenbidea alokairuan dagoela. Azpimarratu du ez daudela gobernu taldearen hirigintza eta etxebizitza politikarekin ados, eta beraz, abstenitu egingo dira.

Ignacio Robles indica que Elkarrekin Podemos no está en contra del pago planteado. La Unidad de Ejecución recoge un 32% de vivienda protegida que sospecha que será en venta y Elarrekin Podemos cree que la solución pasa por el alquiler. Destaca que están en contra de la política urbanística y de vivienda del equipo de gobierno por lo que se abstendrán.

Nerea Guijarrubiak esan du bitxia dela 2020ko aurrekontuak onesteko bileraren hurrengo egunean kreditu osagarri bat aurkeztu izana, eta ez du ulertzen zergatik ez dagoen aurrekontuan jasota, eta horrek, agerian uzten du aurrekontuak ez dituela Getxoko beharrak guztiz kontuan hartzen. Gobernu taldearen hirigintza politika kritikatu dute, eta

Nerea Guijarrubia indica que le llama la atención que al siguiente pleno de la aprobación del presupuesto para el 2020 se presente un crédito adicional y no entiende que no esté recogido en el presupuesto, lo cual evidencia que el presupuesto no responde a las necesidades de Getxo. Son críticos con la política urbanística del equipo de gobierno y reclaman un PGOU nuevo y no desarrollar el actual que está

HAPO berri bat egitea eta dagoena ez garatzea proposatu dute, izan ere, zaharkitua dago. Etxebizitzen arazoari aurre egiteko HAPO berria behar dela esan du, eta hori aurkeztu arte ez dute hirigintza jarduketen alde egingo.

desfasado. Insiste en la necesidad de un nuevo PGOU para afrontar el problema de la vivienda y en tanto no se presente no apoyarán actuaciones urbanísticas.

Alvaro Gonzalezek esan du Egikaritze Unitateko eraikigarritasunaren % 33 udalari dagokiola, eta beraz, udalak hirigintza kargak ordaindu behar dituela. Gaineratu du kreditu osagarria karga horiek ordaintzeko dela.

Alvaro González indica que el 33% de la edificabilidad de la Unidad de Ejecución corresponde al ayuntamiento y por tanto tiene que hacer frente a cargas de urbanización y el crédito adicional es para hacer frente a dichas cargas.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 19 boto (EAJ, PP eta PSE-EE), aurkako 4 boto (EH Bildu) eta 2 abstentzio (Elkarrekin Podemos).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 19 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 4 votos en contra, EH Bildu, 2 absenciones, Elkarrekin Podemos.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas, por mayoría se acordó:

Onestea, gehigarrizko kreditua emateko espedientea, zk. 2019/60, zenbatekoa 208.283,99 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el Expediente número 2019/60 de Crédito Adicional, por importe de 208.283,99 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

## Gastuak / Gastos:

| Partida | **Izendapena**<br>Denominación | **Zenbatekoa**<br>Importe en € |
|---|---|---|
| 050/1530/6010000 | Azpiegitura eta hirigintza (Bide publikoak)<br>Infraestructura y organización (Vías públicas) | 208.283,99 |
| | Guztira<br>Total | 208.283,99 |

## Finantzaketa / Financiación:

| | |
|---|---|
| Aurrekontuan aurreikusitako guztien gainean likidatutako diru-sarrera handiagoak.<br>Mayores ingresos liquidados sobre los totales previstos en el Presupuesto. | 126.688,28 |
| Diruzaintzako gerakina, diru-sarrerei lotutako gastuetarako<br>Remanente de Tesorería para gastos con financiación afectada | 81.595,71 |
| Guztira<br>Total | 208.283,99 |

**LURRALDEA**

**202.- "GETXO AQUARIUM" ZERBITZU PUBLIKOAREN PRESTAKUNTZAREN AMAIERA.**

Alkateak adierazi du EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek baterako boto partikularra eman dutela .

Nerea Guijarrubiak boto partikularra irakurri du:

*"Getxok inguru natural askotarikoa du. Bolueko hezegunea eta Larrañazubi-Mimenaga inguruko padura eremuak, La Galeako labarrak, Azkorriko txilardia, Andra Mari inguruko larreak, eta nola ez, gure kostaldea.*

*Hirigune batentzat luxua da, egun, horrelako inguru naturala edukitzea hain gertu. Baina denok dakigu, ingurune naturalak mantentzeko, kudeaketa publiko egokia eta herritarren kontzientziazioa eta inplikazioa behar direla. Eta ezagutzarik gabe, ez dago kontzientzia hartzerik, eta beraz, zaila da inor inplikatzea.*

*Ezagutza, beraz, gako garrantzitsua da. Gero eta handiagoa da baliabide naturalen ustiaketaren inguruan dagoen kezka, larrialdi klimatikoa dela eta, eta modu berean, ingurune naturalak kontserbatu beharraren aldeko postura. Egoera hau izanda, baina, gure inguru hurbilenaren ezagutza sustatzeari uko eginez gero, herritarren kontzientzia ekologikoan eragiteko aukera ezin hobea galduko genuke.*

**TERRITORIO**

**202.- CESE DE LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO "GETXO AQUARIUM".**

La Alcaldesa indica que hay un voto particular conjunto de EH Bildu y Elkarrekin Podemos.

Nerea Guijarrubia da lectura al voto particular que dice lo siguiente:

*"Getxo cuenta con un entorno natural muy variado. El humedal de Bolue y las zonas de marisma de la zona de Larrañazubi-Mimenaga, los acantilados de La Galea, el brezal de Azkorri, los pastizales de la zona de Andra Mari, y cómo no, nuestra costa.*

*Es un lujo para un núcleo urbano tener un entorno natural como este tan cerca. Pero todos sabemos que, para mantener los entornos naturales, se necesita una gestión pública adecuada y una concienciación e implicación ciudadana. Y sin conocimiento no hay toma de conciencia, por lo que es difícil implicar a nadie.*

*El conocimiento es, por tanto, una clave importante. La preocupación por la explotación de los recursos naturales es cada vez mayor debido a la emergencia climática y a la misma actitud favorable a la conservación de los entornos naturales. Siendo esta la situación, sin embargo, una negativa a promover el conocimiento de nuestro entorno más cercano nos llevaría a perder una oportunidad inmejorable para incidir en la conciencia ecológica de la ciudadanía.*

*Zentzu honetan, helburu bezala ingurumen sentsibilizazioa eta gure inguruaren garapen iraunkorra dituen Getxoko Ingurumen Aretoa aipatu beharrean gaude. Jakina da gizakion eraginak paper garrantzitsua duela klima aldaketan, eta giza-jarduera hauek gurean duten eragina ere ezagutzea berebizikoa da. Gure landek, basoek, mendiek… jasaten duten eraginak atzeraezineko bide batera garamatza askotan. Arlo horretan, aitortu beharreko lana egiten du Larrañazubiko Ingurumen Aretoak.*

*En este sentido, debemos mencionar el Aula de Medio Ambiente de Getxo, cuyo objetivo es la sensibilización ambiental y el desarrollo sostenible de nuestro entorno. Es sabido que la influencia de los seres humanos juega un papel importante en el cambio climático, y conocer también la influencia que estas actividades humanas tienen en nosotros es crucial. La influencia que sufren nuestros campos, bosques, montañas … nos lleva muchas veces a un camino irreversible. En este ámbito, el Aula de Medio Ambiente de Larrañazubi realiza una labor de reconocimiento.*

*Baina landa, baso, mendi, eta orohar, barnealdeko natura inguruneaz gain, aipatu bezala, Getxok badauka kostaldea. Lanean ari gara Txilardi atlantikoa berreskuratzeko, beharrezko inbertsioak eginez, eta Gorrondatxe hondartzako duna ingurunea zaintzerako orduan ez dugu zalantzarik. Baina, uste dugu, itsasoaren zaintza eta bertako ekosistemaren inguruko lanketa ez nahikoa dela gurean. Getxo kostaldeari lotutako udalerria da, eta bere inpaktua handia da itsasoan, izan eraikuntzengatik, izan sortzen ditugun hondakinengatik, izan nabigatze jarduerengatik… Ukaezina da eragin handia dugula, baina ekidiezina da, maila handi batean. Gakoa, berriro diogu, kontzientziazioan eta erantzukizunez jokatzean dago. Eta esan bezala, hau lortzea zaila da, ezagutzarik ez badago.*

*Pero además del medio natural, rural, forestal, montañoso y en general, Getxo cuenta con una costa. Estamos trabajando para recuperar la zona atlántica de Txilardi, realizando las inversiones necesarias, y no tenemos ninguna duda a la hora de cuidar el entorno de la duna de la playa de Gorrondatxe. Pero creemos que la vigilancia del mar y el trabajo en torno a su ecosistema es insuficiente. Getxo es un municipio ligado a la costa y su impacto es enorme en el mar, ya sea por las construcciones, por los residuos que generamos, por las actividades de navegación… Es impresentable que tengamos una gran influencia, pero es inevitable a un gran nivel. La clave, insistimos, está en la concienciación y en actuar con responsabilidad. Y como he dicho, conseguir esto es difícil si no hay conocimiento.*

*Gauzak horrela, Getxo-Aquariumean sortutako egoera aukera bezala ikusi nahi dugu. Foru Aldundiarekin genuen hitzarmena bukatutzat eman da, eta eraikina kudeatzen zuen enpresak berau kudeatzeari utziko dio. Honek, hona ekarri den proposamenak dioen bezala, Aquariumaren itxiera suposatu lezake, bai. Baina guk nahiago dugu ikusi Aquarium-aren moldaketarako aukera bezala.*

*Así las cosas, queremos ver la situación creada en Getxo-Aquarium como una oportunidad. El convenio que teníamos con la Diputación Foral se ha dado por finalizado y la empresa que gestionaba el edificio va a dejar de gestionarlo. Esto, como dice la propuesta que se ha traído aquí, podría suponer el cierre del Aquarium, sí. Pero nosotros preferimos verlo como una oportunidad para la adaptación del*

*Aquarium izatetik, kostaldeko natura ingurunean zentratutako ingurumen areto bilakatzea proposatzen dugu guk. Izan ere, egun, Ingurumen Aretoak eraikin bakarra dauka, eta Getxok, berriz, ingurune natural askotarikoa. Eraikin batek ezin ditu era egokian landu ekosistema hain ezberdinak, ez behintzat, eraginkortasun nahikoaz. Ingurune bat aztertzea beti da errazagoa zuzenean bizi bada, hau da, erakusketa, bideo eta hitzaldiez gain, naturgune zehatz horretan murgildu ahal bagara. Eta Aquarium-aren eraikinak aukera hori ematen du. Egun dagoen Ingurumen Aretoak barnealdeko ekosistemak aztertzeko aukera ematen du, baina zail dauka, bere kokapen geografiko hutsagatik, kostaldeko ingurunea eraginkortasun berdinez lantzea. Egungo Ingurumen Aretoa ere, beste erabilera batzuetara bideratuta egotetik, moldatu eta gaur egun dena izatera pasa zen. Berdina egin genezake Aquariumarekin, eta are errazagoa litzateke, aurreko moldaketa baino.*

*Aquarium. De ser aquarium, nosotros proponemos que la naturaleza costera se convierta en una sala ambiental centrada en el medio ambiente. En la actualidad, el Salón de Medio Ambiente cuenta con un único edificio, mientras que Getxo cuenta con un entorno natural muy diverso. Un edificio no puede abordar de forma adecuada ecosistemas tan diferentes, al menos con la suficiente eficacia. Analizar un entorno siempre es más fácil si se vive en directo, es decir, si además de exposiciones, vídeos y conferencias, podemos sumergirnos en ese espacio natural concreto. Y el edificio del Aquarium ofrece esa posibilidad. La actual Sala de Medio Ambiente permite analizar los ecosistemas del interior, pero tiene difícil, por su mera ubicación geográfica, abordar el medio costero con la misma eficacia. El actual Salón de Medioambiente también pasó de estar destinado a otros usos, a adaptarse y a ser lo que es hoy en día. Podríamos hacer lo mismo con el Aquarium, y sería aún más fácil, que la anterior adaptación.*

*Horrenbestez, honakoa proposatzen dugu:*

*Por lo tanto, proponemos:*

*ERABAKI-PROPOSAMENA*

*PROPUESTA DE ACUERDO*

*Lehenengoa: Getxo – Aquarium Larrañazubiko Ingurumen Aretoari lotuko zaio, helburu eta funtzionamendu oinarri berdinak edukiko dituelarik, beti ere bere inguruneari (kostaldea) lotuta.*

*Primera: Getxo – Aquarium se unirá al Aula Medioambiental de Larrañazubi con los mismos objetivos y bases de funcionamiento, siempre ligados a su entorno (costa).*

*Bigarrena: Udal-Gobernuak behar diren prozesu legalak egikarituko ditu aurreko puntua betearazteko, akuarioko instalazio eta langileen postuak mantentzea lehentasuna izanik.*

*Segundo: el Gobierno municipal ejecutará los procesos legales necesarios para la ejecución del punto anterior, priorizando el mantenimiento de las instalaciones y puestos de personal del acuario.*

*Hirugarrena: Lehen puntuan proposatutako moldaketara begirako prozesuak iraun bitartean, Udal-Gobernuak beharrezko pausuak emango ditu Aquariumak zabalik jarrai dezan, lanpostuak mantenduz. Hau horrela izan dadin, lan arloko legediak, zein*

*Tercero: mientras dure el proceso de adaptación propuesto en el primer punto, el Gobierno municipal dará los pasos necesarios para que el Aquarium siga abierto, manteniendo los puestos de trabajo. Para que esto sea así, utilizará las*

*kontratazio publikoari dagozkionak ematen dituen aukerak erabiliko ditu.*

*posibilidades que ofrece la legislación laboral, así como la de contratación pública.*

*Laugarrena: Erabaki honen berri ematea inplikatutako sailei, hau da, Kontu-hartzailetza, Diruzaintza, Ondarea eta beste batzuei, jakinaren gainean egon daitezen eta bidezko ondorioak izan ditzan.*

*Cuarto: dar traslado del presente acuerdo a los Departamentos implicados, Intervención, Tesorería, Patrimonio y otros, para su conocimiento y efectos oportunos.*

*Bostgarrena: Alkate-udalburuari ahalmena ematea erabaki hau betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan."*

*Quinto.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para la ejecución del presente Acuerdo."*

Esan du akuarioaren adibidea kudeaketa eskasaren adibidea dela. Gaur egun, enpresako langileak greban daude, eta enpresariaren jokaera kritikatu dute, eta esan dute udalean salatu arren, ez zietela kasurik egin. Orain, langileek lana galduko dute, eta beraientzako udaleko langileak dira, nahiz eta azpikontratatuak izan. Gobernu taldeak hitz egokiak esan zizkien eta itxieraren errealitatea ezkutatu zien, oposizioarekin egin zuten bezala. Azaroan bazekiten Bizkaiko Foru Aldundiak ez zuela hitzarmena luzatuko, edo gutxienez bazekiten laguntza murriztuko zutela, eta hala ere, aurrekontu berriak egin zituzten, eta horrek argi uzten du aurrekontuek ez dutela errealitatea adierazten.

Indica que la gestión del Aquarium es un ejemplo de mala gestión. Actualmente están en huelga los trabajadores de la empresa y critican la postura del empresario que ya denunciaron al ayuntamiento que nada ha hecho. Ahora los trabajadores se van a quedar en la calle y para ellos son empleados municipales aunque estén en régimen de subcontratación. El equipo de gobierno les ha dado buenas palabras, engañándoles sobre la realidad del cierre, lo mismo que ha engañado a la oposición. En noviembre sabían que la Diputación Foral de Bizkaia no iba a prorrogar el convenio o al menos iba a reducir la ayuda, pese a ello se incorpora a los presupuestos, lo que evidencia que los presupuestos no reflejan la realidad.

Ignacio Roblesek esan du urriaren 14an alkatetzak akuarioaren itxiera sinatu zuela, eta hamar egun geroago, Elkarrekin Podemosek Informazio Batzordean akuarioari buruz galdetu zuela, eta orduan informazioa ezkutatu zitzaiela. Azaroaren 28an, alkateak, greban zeuden akuarioko langileei erantzunez, esan zuen lagundu egingo zietela, baina ordurako jada sinatuta zuen lanpostuei buruzko epaia. 2020ko aurrekontuetan akuarioak jarraitu

Ignacio Robles indica que el 14 de octubre la Alcaldía firmó el cierre del Acuario, diez días después Elkarrekin Podemos preguntó en la comisión informativa sobre el Aquarium y se les ocultó esta información. El 28 de noviembre en el pleno la Alcaldesa, contestando a los trabajadores del Aquarium, que estaban en huelga, manifestó que les iba a apoyar cuando ya había firmado la sentencia sobre los puestos de trabajo. Se presentan unos

egingo duela jasota dago egia ezkutatzeko, eta orain, urte bukaeran, proposamena aurkeztu dute, beste aukerarik ez egoteko saiakera eginez, eta erru guztia Bizkaiko Foru Aldundiari egozten saiatuz. Egia dena da gobernu taldeak langileei informazioa ezkutatu diela, eta langileak enplegu prekario batengatik borrokatzen ari direla, eta enpresaren menpe jarri dituela, enpresak bazekielarik akuarioa ixteko proposamena zegoela. Egoera hori ikusirik, Elkarrekin Podemosek eta EH Bilduk proposamen bat aurkeztu dute arazoa modu duinean konpontzeko, eta hala, tokiko ekosistemak sustatu dituzte eta akuarioaren zerbitzua hobetzea ahalbidetu dute, bisita gehiago eta kostu gutxiago izango lituzkeelarik. Dirua falta dela dioen alegazioari dagokionez uste dute zerbitzuaren kostuak murriztu daitezkeela, besteak beste enpresarien ordainsariak eta abar gutxituz eta kudeaketa zuzena ezarriz. Zanpatuak izan diren langileentzako kanporatze duina proposatu dute.

presupuestos de 2020 que recogen la continuidad del Aquarium para que no se descubra y ahora a fin de año se presenta la propuesta intentando que no haya ningún margen de maniobra y buscando que se crea que la responsabilidad única es de la Diputación Foral de Bizkaia. La realidad es que el equipo de gobierno ha ocultado información a los trabajadores que se están jugando un empleo precario y les han puesto a los pies de la empresa, que conocía la propuesta de cierre. Ante esta situación Elkarrekin Podemos y EH Bildu plantean una propuesta para dar una salida digna a la cuestión potenciando unos ecosistemas autóctonos y posibilitando un mejor servicio de Aquarium con más visitas y con menores costes. Frente a la alegación de que no hay dinero cree que se pueden rebajar los costes del servicio reduciendo cuestiones como retribuciones del empresario, etc., a través de una gestión directa. Plantea una salida digna para los trabajadores a los que se les ha machacado.

Carmen Diazek esan du Elkarrekin Podemosek eta EH Bilduk proposamena egin zutela lanpostuengatik kezkatuta zeudelako, eta beraiek ere kezkatuta daudela esan du, baina bere ustez, proposamena azkar idatzi delako oso gutxi garatuta dago. Azpimarratu egin du Bizkaiko Foru Aldundiaren jarrera dela-eta sortutako ondorio negatibo ekonomikoa.

Carmen Díaz manifiesta que la propuesta de Elkarrekin Podemos y EH Bildu nace de la preocupación por los puestos de trabajo que también ellos comparten pero que la premura de la propuesta hace que esté muy poco elaborada. Recalca el efecto negativo económico derivado de la postura de la Diputación Foral de Bizkaia.

Eduardo Andredek esan du bakarrik boto partikularraren inguruko iritzia emango duela, eta Marisa Arruek 2006an esandakoak gogoratu ditu, akuariorako proiektu handiagoa defendatu zuelarik. PP beti egon da

Eduardo Andrede indica que va a opinar solamente sobre el voto particular y recuerda la intervención de Marisa Arrúe el año 2006 que defendió un proyecto más ambicioso de Acuario. El PP siempre ha apoyado un

Getxon kalitatezko akuario bat egotearen alde, eta aurkeztutako proposamena urria denez, abstenitu egingo dira.

Aquarium de calidad en Getxo y la propuesta que se presenta es escasa, por lo que se van a abstener.

Joseba Arreguik esan du ulertzen duela une honetan boto partikularra ez dela bideragarria. Batzordean azaldu zuten proiektua Bizkaiko Foru Aldundiarekin egindako akordio batengatik sortu zela, eta foru aldundia izan dela aurretiaz akordioa bukatu duena, eta beraz, bakarrik osoko bilkuran aurkeztutako proposamenak balio duela.

Joseba Arregui indica que entiende que el voto particular no es viable en este momento. Ya explicó en la comisión que el proyecto nace de un acuerdo con la Diputación Foral de Bizkaia que es la que lo ha dado por concluido anticipadamente y por ello solo cabe la propuesta presentada al pleno.

Nerea Guijarrubiak esan du azaldu zutela boto partikularraren edukia Informazio Batzordean, eta proiektu turistikoa albo batera utzi eta ingurumen proiektua sustatzea dela beraien ideia, eta beraz, akuarioa itxiz gero, ingurumen hezkuntzan galerak sortuko liratekeela adierazi du. Proiektua eraldatu nahi dute, eta hala, ingurumen alderdiak sustatu. Proposamena hobetzeko parte-hartze prozesua bultzatzearen alde daude, eta beraz, akuarioa ez ixteko eskatzen dute, kalteak konpondu ezinak liratekeelako.

Nerea Guijarrubia indica que ya explicaron el contenido del voto particular en la comisión informativa y es pasar de un proyecto turístico a un proyecto medioambiental lo que ellos plantean y el cierre supondría una pérdida en la educación medioambiental. Apuestan por una transformación del proyecto para potenciar sus aspectos medioambientales. Son favorables a un proceso participativo al respecto para mejorar la propuesta, por lo que piden que no se cierre el Aquarium, ya que sería irreversible.

Ignacio Roblesek esan du proposamena gutxi landuta dagoela kritikatzen dutela, baina era berean, azken unera arte informazioa ukatzen egon direla. Uste du proposamena landu daitekeela. Akuarioko langileek ideia egingarri asko dituzte, eta gobernu taldeari beraiekin hitz egiteko eskatzen diete. Gobernu taldeak itxiera proposatu du langileei, espezieei, bisitei eta abarrei buruz ezer proposatu gabe. Onartzen du akuarioa garestia dela, baina gobernu taldeak ez du irtenbiderik proposatzen. Ixteko proposatu dute enpresaren eta langileen artean arazoak daudenean. Gobernu taldeari eskatu

Ignacio Robles indica que se critica que la propuesta está poco trabajada cuando se ha negado información hasta última hora. Cree que la propuesta se puede trabajar. Los trabajadores del Aquarium tienen muchas ideas factibles y piden al equipo de gobierno que hablen con ellos. El equipo de gobierno plantea un cierre sin proponer nada acerca de los trabajadores, especies, visitas, etc. Reconoce que el Aquarium es caro pero el equipo de gobierno no quiere buscar soluciones. Plantean un cierre cuando existe un conflicto entre la empresa y los trabajadores. Pide al equipo de

dio langileekin hitz egiteko.

gobierno que hable con los trabajadores.

Joseba Arreguik esan du egoera den bezalakoa dela, ez dutela beraiek aukeratzen. Espedientean jasota dago udalak zerbitzua mantentzeko ahaleginak egin dituela, baina foru aldundiarekin zuten hitzarmena urrian iraungi zela eta Bizkaiko Foru Aldundiak ez duela egokitu, eta kontratua urtarrilaren 31n bukatzen denez, egun horretatik aurrera kontratuarekin jarraitzea arduragabekeria dela.

Joseba Arregui indica que los tiempos son los que son, no los que se desean. En el expediente se refleja que el ayuntamiento ha intentado mantener el servicio pero que el convenio con la Diputación Foral se extinguió en octubre y la Diputación Foralde Bizkaia no lo ha adaptado y el contrato finaliza el 31 de enero y por lo tanto continuar a partir de esa fecha es una irresponsabilidad.

Boto partikularra bozkatuta, baztertu egin da aldeko 6 botorekin (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos), kontrako 14 botorekin (EAJ eta PSE-EE) eta 5 abstentziorekin (PP).

Sometido el voto particular a votación es rechazado al obtener 6 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 14 votos en contra, PNV, PSE-EE; 5 abstenciones, PP.

Ondoren, Joseba Arreguiren proposamenaren inguruan eztabaidatu dute. Hala, gogorarazi du “Getxo Aquarium-eko” zerbitzua lurralde zerbitzua dela, eta horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiak ordaintzen zuela kostuaren zati handiena, 2006an eskuratu zutenetik gaur egunera arte. Hitzarmena 2025eko otsailaren 4ra arte sinatu zuten, eta egun horretan udalak pabiloi horretan duen eskubidea iraungi egingo da. Hitzarmenaren finantzaketa mekanismoa azaldu du, eta horren arabera, erantzukizun ia guztia Bizkaiko Foru Aldundiarena da. Esan du 2019ko urriaren 25ean Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmena bukatutzat jo zuela, Sektore publikoko araubide juridikoari buruzko 40/2015 Legean xedatutakoarekin bat eginez. Udalak, bilera horretan esan zuen 2025era arte hitzarmenarekin jarraitu nahi zutela, baina Bizkaiko Foru Aldundiak beste iritzi bat zuenez, ez zuen hitzarmena epera egokitu, eta

A continuación se procede a debatir la propuesta que la presenta Joseba Arregui que recuerda que el servicio de “Getxo Aquarium” es de ámbito territorial y por eso la Diputación Foral de Bizkaia pagaba la mayor parte del coste desde que se adquirió el año 2006 hasta la fecha. El convenio se firmó hasta el 4 de febrero del año 2025, fecha en que se extingue el derecho del ayuntamiento sobre el pabellón. Detalla el mecanismo de financiación del convenio que asignaba básicamente la responsabilidad a la Diputación Foral de Bizkaia. Indica que el 25 de octubre de 2019 la Diputación Foral de Bizkaia da por concluido el convenio, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 40/2015, del Régimen Jurídico del Sector Público. El ayuntamiento en esa reunión sigue planteando su voluntad de continuar el convenio hasta el 2025, cuestión que no es asumida por la Diputación Foral de Bizkaia que no adapta el convenio en el plazo

beraz, iraungi egin zen. 2019ko urtarrilean hitzarmena iraungi ondoren, 2019rako eta 2020rako finantzaketa emango zuten. Baina errealitatea da jada Bizkaiko Foru Aldundiak ez duela babesik ematen, nahiz eta lurralde zerbitzua izan. Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza galduta, karga ekonomikoa 250.000 eurokoa da udalarentzat urtero, eta gobernu taldeak uste du ez dela lehentasunezko proiektua, badaudelako garrantzitsuagoak diren beste kontu batzuk. 2020ko urtarrilaren 31n bukatu egingo da adjudikaziodunarekin egindako kontratua, eta espezieen balioa ez galtzeko lan egingo dute. Hala, espezieak hurbil dauden akuarioetara eramango dituzte, eta langileen laneko eskubideak betetzen direla kontrolatuko dute. Bukatzeko, akuarioak izan duen garrantzia azpimarratu du.

correspondiente por lo que se extingue. A partir de la extinción en enero de 2019 se facilitaría la financiación para el año 2019 y 2020. La realidad es que ya no existe el apoyo de la Diputación Foral de Bizkaia pese a ser un servicio territorial. La falta de apoyo de la Diputación Foral de Bizkaia supone una carga económica de 250.000 euros al año para el ayuntamiento, que el equipo de gobierno opina que no es prioritario frente a otras cuestiones a las que hay que hacer frente. El 31 de enero de 2020 finaliza el contrato con el adjudicatario y se va a trabajar para no perder el valor de las especies por lo que se trasladarán a acuarios cercanos y vigilarán para que se cumplan los derechos laborales de los trabajadores. Finaliza indicando la importancia del servicio que el Aquarium ha venido prestando.

Ignacio Roblesek esan du 2006an errentagarria izan ez zen akuario pribatua egon zela, eta udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak akordioa egin zutela akuarioaren kargua hartzeko; hitzarmen hori 2025 urtera artekoa izango zen. Denbora guzti honetan, egia da udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak ez dutela interes gehiegirik izan akuarioan. Bizkaiko Foru Aldundiak dirurik ez jartzea erabaki du, eta udalak ez du eskatu hitzarmena egokitzeko, nahiz eta 40/2015 Legearen arabera, egokitzeko legezko betebeharra ezarrita dagoen, baina Bizkaiko Foru Aldundiak eta udalak legea urratu dute, eta hitzarmena iraungitzen utzi dute. Akuarioaren zerbitzuak bere gain hartzeko arrazoiak indarrean daude oraindik. Udalak ez du ezer egin zerbitzua mantentzeko aukerak aztertzeko, eta eskatu du

Ignacio Robles indica que en el año 2006 existió un Aquarium privado no rentable y se llegó a un acuerdo entre el ayuntamiento y la Diputación Foral de Bizkaia para hacerse cargo del Aquarium con un convenio que les vinculaba hasta el año 2025. Durante esta época la verdad es que ni el ayuntamiento ni la Diputación Foral de Bizkaia han tenido mayor interés en el Aquarium. La Diputación Foral de Bizkaia ha decidido no poner dinero y el ayuntamiento no ha exigido que se adapte el convenio pese a que la Ley 40/2015 impone una obligación legal de adaptación, pero la Diputación Foral de Bizkaia con el ayuntamiento han incumplido la ley y han dejado exitinguir el convenio. Los motivos de la asunción del servicio de Aquarium siguen vigentes. El ayuntamiento nada ha hecho por estudiar fórmulas para el

proposamenak aurkezteko zerbitzu itxieraren porrota onartu aurretik. Erantzun du oraindik ez dutela esan zer gertatuko den itxi ondoren instalakuntzekin, langileekin eta bisitariekin. Dirudienez gogoa badago, baina ez dakigu zein den eta gogo hori ez da zehazten, eta egoera horren aurrean, ezin dute alde bozkatu.

mantenimiento del servicio y pide que presente propuestas antes de asumir el fracaso que supone el cierre del servicio. Recplica que queda sin responder qué va a pasar acerca de los efectos del cierre sobre las instalaciones, trabajadores y visitantes. Existe al parecer una voluntad pero no se concoce ni se concreta y ante esta situación no pueden votar a favor.

Carmen Diazek esan du une tristea dela, eta nahiago luketela proposamen horren alde ez egin. Akuarioaren helburua zein zen azaldu du, eta esan du zerbitzuak jarraitu egin duela nagusiki Bizkaiko Foru Aldundiak finantzaketa ia osoa gauzatzen zuelako, eta aurreikuspena 2025era arte jarraitzea zela esan du, baina ikusirik hitzarmena iraungi dela eta Bizkaiko Foru Aldundiak ekarpena kenduko duela, akuarioaren itxieraren alde bozkatu behar duela, izan ere, udalaren gain hartzea udal finantzek onartu ezin dezaketen karga da, lehentasuna duten beste proiektu batzuk baitaude.

Carmen Díaz manifiesta que es un momento triste y que preferirían no tener que apoyar esta propuesta. Indica cual era el objetivo del Aquarium y que ese servicio se ha sustentando básicamente porque la Diputación Foral de Bizkaia ponía la mayor parte de la financiación y la previsión era continuar hasta el año 2025 pero a la vista de la extinción del convenio y que la Diputación Foral de Bizkaia retira su aportación tienen que aprobar el cierre del mismo porque su asunción supone una carga a las finanzas municipales no asumible ya que existen otros proyectos prioritarios.

Nerea Guijarrubiak esan du Elkarrekin Podemosek eta EH Bilduk elkarrekin aurkeztutako proposamena sinplea dela esan dutela, baina hala ere, gobernu taldearen proposamena hutsa dela adierazi du, bakarrik ixtea proposatzen baitute, besterik gabe. Zerbitzua itxiko da, nahiz eta urte askoan zehar inbertsioa egin bertan. Esan du tristeziarekin eta atsekabearekin ez dela politika egiten, baizik eta jarduketekin eta erabakiekin. Proposamena kudeaketa eskasaren adibide da. Langileek, aurreko hilabeteetan beren egoera salatu dute, eta udalak ez du ezer egin. Gobernu taldeak azaroaren 18ra arte ez zuen bilerarik egin langileekin, eta horiek dira gobernu taldearen

Nerea Guijarrubia manifiesta que se ha criticado como simple la propuesta que han presentado por parte de Elkarrekin Podemos y EH Bildu, pero la propuesta del equipo de gobierno es vacía, solo se plantea el cierre y no se concreta nada más. Se cierra un servicio pese a la inversión realizada durante años. Indica que con tristeza y pena no se hace política sino con actuaciones y decisiones. La propuesta es un ejemplo de mala gestión. Los trabajadores han denunciado meses anteriores su situación y las gestiones municipales han sido nulas. El equipo de gobierno hasta el día 18 de noviembre no se ha reunido con los trabajadores que son los más afectados por la propuesta del equipo de gobierno pese a saber que la

proposamenaren eragin latzenak sufrituko dituztenak, eta gobernu taldea ez zen beraiekin batu, nahiz eta jakin Bizkaiko Foru Aldundiak ez zuela jarraituko zerbitzua finantzatzen. Hala ere, 2020ko aurrekontuan zerbitzua kudeatzeko kreditua dago jasota. Batzordean emandako azalpenak eta beraien jarrera lotsagarriak direla uste dute. Badaki ez dela gai erraza, baina politikarien ardura da irtenbideak bilatzea eta arazoei aurre egitea. Esan du gainera, kasu honetan, diruaz gain, familien etorkizuna kolokan dagoela. Erantzukizun politikoari jarraiki, akuarioa ez da itxi behar, eta lotsagarria iruditzen zaio gobernu taldeak izandako jarrera, kudeaketa eskasaren ondorioz gertatutakoa salagarriagoa delarik.

Diputación Foral de Bizkaia no iba a seguir financiando el servicio. Pese a ello el presupuesto para 2020 recoge el crédito para la gestión del servicio. Le parecen vergonzosas las explicaciones dadas en la comisión y la postura mantenida. Sabe que no es un tema fácil pero es la obligación de los políticos ante los problemas buscar propuestas y dar la cara. Destaca que en este caso además del dinero está el futuro de familias concretas. La responsabilidad política exige no cerrar el Aquarium y le parece vergonzosa la actitud mantenida por el equipo de gobierno cuya mala gestión hace aún más denunciable lo que ha sucedido.

Eduardo Andradek esan du 2004an zenbait partikularrek akuario bat eraiki zutela Kirol Portuan eta proiektuak galera asko izan zituela, baina Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin, udalak 2006an akuarioa erosi zuela eta ondoren aurreko kudeatzaileei esleitu zitzaiela zerbitzuaren kudeaketa, udalak inolako arriskurik bere gain hartu gabe. Horregatik, eta PPren iritziz Getxok akuario hobea izan behar duelako, akuarioaren erosketa bozkatzean abstenitu egin zen. 2008an zehar PSE-EEk mozioa aurkeztu zuen akuarioa Portu Zaharreko zabalgunean handitzeko, eta onetsi egin zen PPren laguntzarekin, PPk beti nahi izan baitu Getxorako egokia den akuarioa. Bere ustez, akuarioaren kudeaketa guztia eskasa izan da. 2018ko urrian Bizkaiko Foru Aldundiak 250.000 euro emango zituela esan zuen, bai 2019an, bai 2020an. Udal hauteskundeen ondoren, eta emaitzak ikusirik, irizpidea aldatu zuten, eta ez diruagatik, izan ere, udalak soberakin milioidunak baititu.

Eduardo Andrade indica que el año 2004 unos particulares montaron un acuario en el Puerto Deportivo que fue a la ruina pero el año 2006 el Ayuntamiento con ayuda de la Diputación Foral de Bizkaia compró el acuario y luego se adjudico a los anteriores gestores la gestión del servicio sin riesgo alguno por su parte. Por ello y porque el PP opina que Getxo debe de tener un Aquarium mejor se abstuvo en la compra del acuario. Durante el año 2008 el PSE-EE presentó una moción para ampliar el Aquarium a la explanada del Puerto Viejo que fue aprobada con el apoyo del PP ya que siempre ha apoyado un Aquarium de nivel adecuado para Getxo. Estima que toda la gestión del Aquarium ha sido deficiente. En octubre de 2018 la Diputación Foral de Bizkaia manifiesta que va a aportar 250.000 euros tanto el año 2019 como en 2020. Tras las elecciones municipales, a la vista de los resultados, se cambia el criterio y no por dinero ya que el ayuntamiento

2019ko urrian alkatea eta foru aldundia bildu egin ziren eta akuarioa ixtea erabaki zuten, eta ondoren, hurrengo erabakietan, guztia zehaztu zuten.

tiene remanentes millonarios. En octubre de 2019 la Alcaldesa y la Diputacion Foral correspondiente se reúnen y deciden cerrar el acuario y luego le dan forma en posteriores decisiones.

Ignacio Uriartek esan du bakarrik sei hilabete igaro direla hauteskundeetatik, eta urrira arte alkateak ezin izan zuela egoera aztertu. Udalak beti defendatu izan du zerbitzua, eta horregatik sartu zuten aurrekontuan. Urrian jakin zuten Bizkaiko Foru Aldundiak ez zuela akordioarekin jarraituko, eta akordio formala azken osoko bilkuraren ondoren egin zuten, eta horregatik ari dira bilkura honetan jorratzen, izan ere, kontratua urtarrilaren 31n bukatuko da. Instalakuntzen eta arrainen etorkizunaren inguruan ere lanean ari dira.

Ignacio Uriarte indica que solo han pasado seis meses desde las elecciones y hasta octubre la Alcaldesa no pudo analizar la situación. La voluntad del ayuntamiento ha sido siempre defender el servicio por lo que se incorporó al presupuesto. En octubre se conoce la voluntad de la Diputación Foral de Bizkaia de no continuar y el acuerdo formal se realiza después del último pleno ordinario y por eso se ha traído a este pleno con la situación derivada que el contrato finaliza el 31 de enero. Se está trabajando también sobre el futuro de las instalaciones y de los peces.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: 14 boto alde (EAJ eta PSE-EE), 6 boto kontra (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta 5 abstentzio (PP).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PNV, PSE-EE; 6 votos en contra, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 5 abstenciones, PP.

Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio, por mayoría se acordó:

LEHENENGOA: Getxo – Aquarium Zerbitzu Publikoaren prestazioa etetea onestea.

PRIMERO: Aprobar el cese de la prestación del Servicio Público Getxo – Aquarium.

Zerbitzua emateari uzteko data 2020ko urtarrilaren 31 izango da, egun horretan amaitzen baita enpresa esleipendunarekin sinatutako kontratua.

La fecha del cese de la prestación del servicio será el día 31 de enero de 2020, fecha en la que finaliza el contrato suscrito con la empresa adjudicataria.

BIGARRENA: Zerbitzua emateari utzi ondoren Udal Inbentarioan Akuarioaren zerbitzuari atxikitako udal ondasunen aldaketak islatzea.

SEGUNDO: Reflejar en el Inventario Municipal las variaciones de los bienes municipales afectos al servicio del Acuario, tras el cese de la prestación del

servicio.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea inplikatutako sailei, hau da, Kontu-hartzailetza, Diruzaintza, Ondarea eta beste batzuei, jakinaren gainean egon daitezen eta bidezko ondorioak izan ditzan.

TERCERO: Dar traslado a los departamentos implicados: Intervención, Tesorería, Patrimonio y otros, de este acuerdo para su conocimiento y efectos.

LAUGARRENA: Alkate-udalburuari ahalmena ematea erabaki hau betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

CUARTO: Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas disposiciones sean precisas en orden a la ejecución del presente acuerdo.

**203.- ITURGITXI KALEKO 49. ZENBAKIAN DAGOEN ERAIKINA ORDEZKATZEKO XEHETASUN-AZTERKETA BEHIN-BETIKO ONESTEA ETA EGINDAKO ALEGAZIOA EBAZTEA.**

**203.- APROBACION DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LA PARCELA SITA EN EL NÚMERO 49 DE LA CALLE ITURGITXI, CON RESOLUCIÓN DE LA ALEGACIÓN PRESENTADA.**

Proposamena irakurri ondoren, Iñigo Urkitzak aurkeztu egin du, eta azaldu egin ditu prozedura, aurkeztutako alegazioak eta proposatutako irtenbideak.

Tras darse lectura a la propuesta Iñigo Urkitza presenta la misma explicando el procedimiento habido y las alegaciones presentadas así como las soluciones planteadas.

Ignacio Roblesek esan du ez duela ezer Xehetasun Azterketaren aurka, baina abstenitu egingo dela esan du, ez daudelako ados gobernu taldearen hirigintza eta etxebizitza politikarekin.

Ignacio Robles manifiesta que no tiene nada en contra del Estudio de Detalle pero se abstendrán porque no están de acuerdo con la política urbanística y de vivienda del equipo de gobierno.

Nerea Guijarrubiak esan du Xehetasun Azterketaren proposamenen aurka bozkatzen jarraituko dutela EH Bilduk adierazitako irizpidearekin bat eginez, hain zuzen ere lehenik eta behin HAPO berrikusi behar dela, horixe baita eztabaidatu beharreko dokumentu osoa, eta horregatik, ez dute zaharkitua dagoen HAPO garatzearen alde egingo, ez baitaude horren alde.

Nerea Guijarrubia indica que seguirán votando en contra de las propuestas de Estudio de Detalle por coherencia con el criterio de EH Bildu de que lo urgente y fundamental es revisar el PGOU que es el documento integral que hay que debatir y por ello no van a apoyar el desarrollo de un PGOU obsoleto, como el actual, que no comparten.

Ignacio Uriartek esan du proposamen hori ohiko izapidetzea dela, eta

Ignacio Uriarte manifiesta que esta propuesta es un trámite ordinario que

hirigintza zinegotziak azaldu duela.

se ha explicado por el concejal de Urbanismo.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 14 boto (EAJ eta PSE-EE), aurkako 4 boto (EH Bildu) eta 7 abstentzio (PP eta Elkarrekin Podemos).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PNV, PSE-EE; 4 votos en contra, EH Bildu; 7 abstenciones, PP, Elkarrekin Podemos.

Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio, por mayoría se acordó:

I.- Espedientean jasotako txostenekin (jakinarazi egingo dira) bat etorriz, Alberto Conde Ledo jaunak Tokiko Gobernu Batzarraren 2019-06-25eko 295. Erabakiaren aurka aurkeztutako alegazioa (zk.: 23.600/2.019) ebaztea. Erabaki horren bidez, Iturgitxi kaleko 49. zenbakiko eraikina ordezkatzeko xehetasun azterlan bat hasieran onetsi zen.

I.- Resolver de conformidad con los informes obrantes en el expediente, de los que se dará traslado, la alegación presentada con el nº 23.600/2.019 por D. Alberto Conde Ledo frente al acuerdo nº 295, adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 25.06.2019, por el que se dispone la aprobación inicial del Estudio de Detalle para la sustitución del edificio sito en el nº 49 de la calle Iturgitxi.

Hala, onetsi egiten da lerrokaduren aldaketari dagokionez eta gaur egungo pasabidea ez aldatzearen azalpenari dagokionez. Bada, berariaz jasota utzi behar da xehetasun-azterketaren xedea dela etorkizuneko eraikinetako lerrokadurak eta sestrak ezartzea. Horrenbestez, dokumentuan adierazitako beste edozein alderdi hurrengo dokumentuan aztertuko dira, hau da, eraikuntzako oinarrizko proiektuan. Hala, horiek oraingo dokumentuan adierazteak ez dakar horiek onartu edo onestea.

De este modo, se estima la misma en lo referente a la modificación de las alineaciones y la aclaración de que no se modifica el paso existente en la actualidad, debiendo dejar constancia expresa de que el objeto del estudio de detalle es el establecimiento de alineaciones y rasantes de las futuras edificaciones y, por tanto, cualquier otro aspecto señalado en el documento, será analizado en el posterior Proyecto Básico de la edificación, sin que la señalización de los mismos en el documento actual suponga la aceptación o aprobación de los mismos.

II.- Behin betiko onestea SILVIA CARRASCAL URQUIDI andreak UNIVERSAL INGENIERÍA Y CONSTRUCCIÓN SLren izenean eta ordezkaritzan aurkeztutako xehetasun-azterketa, Iturgitxi kaleko 49. zenbakiko

II.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle presentado por DÑA. SILVIA CARRASCAL URQUIDI, en nombre y representación de UNIVERSAL INGENIERÍA Y CONSTRUCCIÓN, S.L., para la

eraikina ordezkatzeari buruzkoa, ARKI-PROJECT NORTE SLPko Luciano Cobaleda Hernández eta Raúl García Garcia jaunek idatzitakoa, alegazioaren ebazpenetik eratorritako zuzenketekin (horiek 2019-10-04ko I-06, I-07, O-01 eta O-02 planoetara eraman dira).

sustitución del edificio sito en el nº 49 de la calle Iturgitxi, redactado por los Arquitectos D. Luciano Cobaleda Hernández y D. Raúl García Garcia, de ARKI-PROJECT NORTE SLP, con las corrrecciones derivadas de la resolución de la alegación según el párrafo precedente, trasladadas a los planos I-06, I-07, O-01 y O-02 aportados el 04.10.2019.

Hasierako onespenean aipatu diren ñabardurak kontuan izango dira.

Se tendrán en cuenta las matizaciones apuntadas a la aprobación inicial.

Berariaz jasotzen da ingurumen administrazioko zuzendariaren 2019-11-27ko EBAZPENAren bidez xehetasun-azterketa honen ingurumen txosten estrategikoa formulatu zela.

Se hace constar, de forma expresa, que por RESOLUCIÓN de 27.11.2019, del Director de Administración Ambiental, se formula el informe ambiental estratégico del presente Estudio de Detalle.

III.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta interesatuei jakinaraziko zaie, jar ditzaketen errekurtsoak azalduz.

III.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia y notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

IV.- Alkatetza-Udalburutzari ahalmena emango zaio erabaki hauek burutzeko behar diren ebazpenak eman ditzan.

IV.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

**204.- JULIÁN GARAIZAR KALEKO 1., 2. ETA 3. ZENBAKIETARAKO XEHETASUN AZTERKETA, BEHINBETIKO ONESTEA.**

**204.- APROBACION DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PARA LOS NÚMEROS 1-2-3 DE LA CALLE JULIAN GARAIZAR.**

Proposamena irakurri ondoren, Iñigo Urkitzak aurkeztu egin du, eta garatutako administrazio prozedura zein izan den esan du, eta adierazi du ez dela alegaziorik aurkeztu.

Tras darse lectura a la propuesta Iñigo Urkitza presenta la misma indicando el procedimiento administrativo desarrollado y que no ha habido alegaciones presentadas.

Ignacio Roblesek esan du aurreko bilera batean hirigintza aldaketa bat hiru urtean zehar atzera jo zutela, eta hala ere, kasu honetan, administrazio

Ignacio Robles recuerda que en un pleno anterior se ha retrotraído una modificación urbanística durante tres años y sin embargo en este caso se ha

arintasuna ezarri dela, eta ez du ulertzen zergatik tratatu diren ezberdin. Horregatik, eta gobernu taldearen hirigintza politikaren aurka daudelako, abstenitu egingo dira.

extremado la agilidad administrativa y no entiende estos diferentes tratamientos. Por lo expuesto y porque están en contra de la política urbanística del equipo de gobierno se abstendrán.

Proposamena bozkatu eta ondorengo emaitza atera da: aldeko 14 boto (EAJ eta PSE-EE), aurkako 4 boto (EH Bildu) eta 7 abstentzio (PP eta Elkarrekin Podemos).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PNV, PSE-EE; 4 votos en contra, EH Bildu; 7 abstenciones, PP, Elkarrekin Podemos.

Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio, por mayoría se acordó:

LEHENENGOA.- Behin betiko onestea ALEX CARRASCAL URQUIDI jaunak UNIVERSAL INGENIERÍA Y CONSTRUCCIÓN SLren izenean eta ordezkaritzan aurkeztutako xehetasun-azterketa, Julián Garaizar kaleko 1-2-3 zenbakiei dagokiena (16-"Konporte" banaketa-area), ARKI-PROJECT NORTE SLPko Cobaleda Hernández eta García García arkitekto jaunek idatzia.

PRIMERO.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle que presenta D. ALEX CARRASCAL URQUIDI, en nombre y representación de UNIVERSAL INGENIERÍA Y CONSTRUCCIÓN S.L., para los nº 1, 2 y 3 de la calle Julián Garaizar (Area de Reparto nº 16-"Konporte"), redactado por los Arquitectos Sres. Cobaleda Hernández y García García, de ARKI-PROJECT NORTE, S.L.P.

Xehetasun azterketaren helburua lur-zatietan lerrokadurak eta sestrak definitzea da, indarreko HAPOren arabera, areako hirigintza-parametroetara egokitzeko. Hala, eraikin berrien integrazioa bere inguruko hirigunean definituko da.

El objeto del Estudio de Detalle es la definición de las alineaciones y rasantes de las parcelas para que se adapten a los parámetros urbanísticos del área en la que se encuentran según señala el PGOU vigente, con el fin de definir la integración de las nuevas edificaciones en el conjunto urbano en el que se sitúan.

Hasierako onespenean aipatu diren ñabardurak kontuan hartu dira onespena egiteko.

Esta aprobación se realiza con las matizaciones apuntadas a la aprobación inicial.

Jasota gelditu da, beren-beregi, Ingurumen administrazioko zuzendariaren 2019-10-28ko EBAZPENAren bidez formulatu zela

Se hace constar, de forma expresa, que por RESOLUCIÓN de 28.10.2019, del Director de Administración Ambiental, se formula el informe ambiental

xehetasun azterlan honen ingurumen txosten estrategikoa. Ebazpen hori 2019-11-07ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian txertatu zen.

estratégico del presente Estudio de Detalle. Dicha resolución se inserta en el Boletín Oficial del País Vasco de 07.11.2019.

BIGARRENA- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta interesdunei jakinaraziko zaie, jar ditzaketen errekurtsoak azalduz.

SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia y notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

HIRUGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari erabaki horiek egikaritzeko beharrezkoak diren nahi adina ebazpen hartzeko ahalmena ematea.

TERCERO.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

## UDAL ORGANOEN KONTROLA

## CONTROL DE LOS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN

### 205.- EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALARI BURUZKO. BOZERAMALE BATZORDEAREN AKORDIOAREN BERRI EMATEA.

### 205.- DACIÓN DE CUENTA DE LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL ACORDADA POR LA JUNTA DE PORTAVOCES RELATIVA AL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA.

Idazkariak akordioa irakurri du.

El Secretario da lectura al acuerdo.

Alkatetzak proposamena eginda, 2019ko abenduaren 3ko Bozeramaileen Batzordearen akordioaren jakitun egon, ondorengo udal erakundearen adierazpenari doakionez:

A propuesta de la Alcaldía quedaron enterados de la siguiente declaración institucional adoptada por la Junta de Portavoces de 3 de diciembre de 2019:

"2019KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA
Bide berriak, modu berriak
Ongi etorri etorkizunera!
Jauzika dator euskara. Jauzika mendez mende. Jauzika egunez egun. Bihotzetik bihotzera jauzika. Eta, batez ere, ezpainez ezpain jauzika.
Bere eguna du gaur euskarak,

"DECLARACIÓN DEL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA DE 2019
¡Bienvenidas, bienvenidos al futuro!

El euskera viene saltando de siglo en siglo. De día en día. De corazón en corazón. Y, sobre todo, de boca en boca.

El euskera celebra hoy su día, más

Nazioarteko Eguna hain zuzen ere. Baina ongi asko dakigu euskal herritarrok eta euskal hiztunok gaur ospatzen duguna ez dela egunaren mugetara errenditzen. Jauzi egiten du euskarak egunaren mugez gaindi ere. Jauzi egiten du euskarak muga guztiez gaindi, gure ahoan bizi-bizi, gure belarrietan zernahitarako prest beti. Noranahiko euskara gurea, denona.

concretamente su Día Internacional. Pero sabemos muy bien que lo que hoy celebramos los y las vascohablantes y la ciudadanía vasca en general no se circunscribe a los límites de un solo día. El euskera salta también esos límites. Salta por encima de todas las fronteras, pleno de vitalidad en nuestros labios, siempre bienvenido en nuestros oídos. Nuestro euskera, apto para todo, ese euskera que a todas y todos nos pertenece.

Zer genuke, bestela, gaur ospatzeko?
Bide luzea egina du euskarak, eta harekin batera euskal hiztunok eta euskaltzaleok, etorkizuna irabazteko etengabeko ahaleginean. Bide luzea du egina euskal gizarteak euskara plaza guztietara duintasun osoz eramateko. Eta asko lortu da. Jardunak berak erakutsi digu, erakusten digu egunero, ezinbestekoa dela bide horiek, gauzak egiteko moduak, etengabe eguneratzea, eraberritzea, irudimenez biziagotzea. Eta argi erakusten ari gara euskalgintzan ari garen guztiok prest gaudela, eta gogotsu, irakaspena barneratzeko eta praktikan mamitzeko.

¿Qué otra cosa podríamos celebrar hoy?
El euskera ha recorrido un largo camino, y, con él, la comunidad de vascohablantes y euskaltzales, en un esfuerzo sostenido para ganar el futuro. La sociedad vasca ha recorrido un largo camino para llevar al euskera, con toda dignidad, a todos los ámbitos y lugares. Y mucho es lo logrado. La propia acción nos ha enseñado, nos enseña a diario, hasta qué punto es imprescindible actualizar los procedimientos, renovarlos, vigorizarlos a base de imaginación. Y todo el conjunto de quienes nos implicamos en las labores propias de la euskalgintza estamos dejando muy patente nuestra disposición y entusiasmo a la hora de interiorizar y poner en práctica esa enseñanza.

Jarduerak adostu ditugu. Diagnostikoak hurbildu ditugu. Ekimenak josi ditugu elkarrekin. Elkarrekin ebaluatu dugu egindakoa. Elkarrekin hobetuko dugu hobetu beharrekoa.
Eta gizarteak erantzun sendoa eman du, onetsiz euskararen erabilera era iraunkor eta argian handiagotzeko estrategia eta molde berriak.

Acordamos las acciones. Aproximamos los diagnósticos. Tejemos iniciativas compartidas. Evaluamos juntos el trabajo realizado. Perfeccionaremos codo con codo todo cuanto sea susceptible de mejora.
Y la sociedad ha respondido con fuerza, haciendo suyas las nuevas estrategias y formas orientadas a aumentar el uso del euskera de manera nítida y sostenida.

Badugu, bai, zer ospaturik aurtengo Euskararen Nazioarteko Egun honetan ere.
Ezagutzen ez genuen modu batean

Tenemos, por tanto, qué celebrar también en este Día Internacional del Euskera.
El exitoso ejercicio social que el año

aktibatu zituen iazko gizarte-ariketa arrakastatsuak euskal hiztunak, neurri batekoak nahiz bestekoak. Aktibatu zituen, baita ere, herri aginteak eta askotariko gizarte-erakundeak, ikuspegi berri batetik. Eta, batez ere, estrategiak eta diskurtsoak eraberritzeko joera eta prestasuna aktibatu zituen.

Aldekotasuna, horrela, konpromiso eragingarri eta praktiko bihurtzeko bidean jarri zen.
Badator, hurbileko ostertzean, ekimen haren jarraipena. Euskaraldia berraktibatuko dugu, berriz ere denon arteko adostasun eta lankidetzan, eta hurrengo urteko Euskararen Nazioarteko Egunak izango du, ezinbestez, toki propioa ariketa sozial erraldoi horren ingurumarian.

Ez da, baina, horretara mugatzen euskararen erabilera areagotzeko eginahala. Ezin inola ere horretara mugatu. Alorrez alor landu beharra dago erabileraren landarea, sendo haz dadin.
Ugari dira berariazko lanketa eskatzen duten alorrak, eta horien guztien artean bada bat gizarte-bizitzaren gune-gunean dagoena: ekonomia, lana eta kontsumoa biltzen dituen arloa, hain zuzen ere, gizartearen eta herritarron bizitzaren motore nagusia baita.
Arlo sozioekonomikoak eta euskararen erabilerak elkarri egin behar dioten ekarriaren garrantzia ez da gutariko inorentzat ezezaguna. Bai baitakigu ez dela hizkuntza normalkuntzarik lanaren, ekonomiaren eta kontsumoaren munduan erro sakonik ez duenik.
Sendoak dira, alor horretan ere, eragile nagusiak egiten ari diren urratsak. Eta horietan lehena, zalantzarik gabe, euskararen erabilera askotariko

pasado se llevó a cabo activó de forma nunca vista hasta entonces a las y los vascohablantes, sea cual fuere el grado en que lo son. Activó igualmente, y desde una nueva perspectiva, a los poderes públicos y a las más diversas organizaciones sociales. Y activó, sobre todo, una actitud proclive y dispuesta a la renovación de estrategias y discursos.
La actitud favorable al euskera dio, así, pasos hacia un compromiso eficaz y práctico.
Vislumbramos ya, en un horizonte cercano, la prolongación de aquella iniciativa. Reactivaremos el Euskaraldia, nuevamente en una atmósfera de acuerdo y colaboración, y el Día Internacional del Euskera del año próximo ocupará, cómo no, su lugar específico en el contexto de ese formidable ejercicio social.
No se limita a eso, sin embargo, el esfuerzo por aumentar el uso del euskera. De ninguna manera podría limitarse a eso. Es preciso trabajar en todos los ámbitos, a fin de que ese uso crezca con vigor.
Son muchos los ámbitos que exigen una labor específica, y entre todos ellos, uno se sitúa en el núcleo del devenir de la sociedad: la esfera de la economía, el trabajo y el consumo, motor principal de la vida social y ciudadana.

A nadie se le escapa la relevancia de la aportación recíproca entre el ámbito socioeconómico y el euskera. Porque somos muy conscientes de la inviabilidad de una normalización lingüística que no arraigue profundamente en el mundo del trabajo, la economía y el consumo.
Los principales agentes que operan en ese ámbito están dando pasos ciertamente sólidos. Y destaca entre ellos, sin duda alguna, la inserción del

erakundeen izaeraren ezaugarrien artean txertatzea dago.

uso del euskera entre los elementos consustanciales a la más diversas organizaciones.

Bide berriak, modu berriak, arlo sozioekonomikoan ere.
Estrategia berriak, beraz. Konpromiso berriak. Konpromisoari erantzuteko molde berriak. Praktika berriak.

Nuevos caminos, nuevas formas, también en el ámbito socioeconómico.
Nuevas estrategias, por tanto. Nuevos compromisos. Nuevas maneras de responder al compromiso. Nuevas prácticas.

Azken batean, aldekotasun eraldatzailea da gure gizartea, euskal hiztunok eta euskaltzaleok aktibatuz, bideratzen ari dena.

En definitiva, es una actitud, además de favorable al euskera, transformadora lo que nuestra sociedad está sustanciando por medio de la activación del conjunto de vascohablantes y euskaltzales.

Bertan du euskarak etorkizuna.
Bide eta praktika berrietatik datorren etorkizuna.
Ongi etorri etorkizunera!

En ello radica el futuro del euskera.
Un futuro que viene de la mano de nuevas vías y prácticas.
¡Bienvenidas, bienvenidos al futuro!

Hori horrela, Getxoko Udalak onartzen du azken hamarkadetan egin den ibilbidean, batasuna eta herritarren bultzada izan dira giltzarri eta euskarririk sendoenak. Gaurtik etorkizunera begira jarriaz, euskara batua zutabe gisa hartuaz, gure hizkuntzaren orubea zabaltzen joan behar dugu, eta horretarako honako konpromisoak hartzen dituela adierazten du 2019ko euskararen nazioarteko egun honetan:

Así, el Ayuntamiento de Getxo reconoce que la unidad y el impulso ciudadano han sido las claves y el soporte más sólido en el recorrido que se ha desarrollado en las últimas décadas. Con la mirada puesta desde hoy en el futuro, tomando el euskera batua como pilar, debemos ir ampliando el solar de nuestra lengua, y para ello, en este Día Internacional del Euskera 2019, manifiesta que se compromete a:

1.- Erakundeak lehentasunez erabiltzea euskara, bere jakinarazpen eta gainerako erakunde, hornitzaile zein elkarteekiko harremanetan. Hori guztia gorabehera, udalak jarraituko du bere mezuak bi hizkuntza ofizialetan igortzen, ukitutako herritarrak udalarekin harremanetan jartzeko berariaz bi hizkuntzetatik bat aukeratu duenean salbu.

1.- Uso preferente del euskera por parte de la entidad, en sus comunicaciones y en las relaciones con el resto de entidades, proveedores y asociaciones. Sin perjuicio que el ayuntamiento seguirá remitiendo sus comunicaciones en los dos idiomas oficiales, excepto en los casos en que el ciudadano o ciudadana afectada haya solicitado relacionarse con el ayuntamiento exclusivamente en uno de los dos idiomas.

2.- Gure administrazio publikoaren kontratuetan hizkuntza-irizpideak zehaztea eta ezartzea.

2.- Determinar e implantar criterios lingüísticos en los contratos de nuestra Administración Pública.

3.- Administrazio publikoen kontratazioetan ziurtagiriak —Bikain eta Bai Euskarari, besteak beste— bateratu eta indartzeko neurriak hartzea.
4.- Euskararen erabilera sustatzen duten hainbat tresna sustatzea, hala nola softwarea eta oinarrizko aplikazioak euskaraz, astialdirako IKT produktuak, .eus domeinua eta euskararen erabilera interneten.
5.- Urte anitzeko hitzarmenak sustatzea euskarazko toki-komunikabideen jasangarritasun ekonomikoa eta egonkortasuna bermatzeko.
6.- Euskararen erabilera eta presentzia bermatzea erabiltzen ditugun komunikabide guztietan.
7.- Kirolaren euskalduntze-bidean lan egitea, federazioarekin eta tokiko klubekin elkarlanean.
8.- Gazteentzako euskarazko aisialdi-zerbitzuak sustatu eta zabaltzea.
9.- Familia-eremuetan euskararen erabilera eta transmisioa sustatzea.
10.- Migratzaileentzako laguntza-ildoak aktibatzea, euskara ikasteko eta euskal kulturara hurbiltzeko aukera izan dezaten.
11.- Enpresetan euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak aktibatzea, euskara laneko eta zerbitzuetako hizkuntza izan dadin.
12.- Jarduera arau-emailea garatzea, enpresetan euskara erabiltzeko planak indarrean jartzeko.
